



## XXIX. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

*Euskararen normalizazioak ezinbestez behar ditu euskaraz egindako kazetaritza eta komunikazio prestu eta modernoa, kalitatekoa eta garaian garaiko beharrianetara egokitua. Helburu horren alde, Andoaingo Udalak XXIX. Rikardo Arregi Kazetaritza sarirako deialdia egiten du, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntzaz, ondoko hauek direlarik aipatu sari horren oinarriak:*

### 1.- Sariaren xedea.

Euskarazko kazetaritzaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea da *Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren* helburua. Horrela, bada, ondoren zehazten den urtebeteko epearen barruan egin izan diren kazetaritza-lanen kalitatea eta bikaintasuna jendaurrean aitortzea eta saritzea da sari honen xedea, epaimahaiak eredugarrien iritzitako lanak sarituz.

### 2.- Sari-atalak.

Ondoko bi atalotan banatzen da saria:

- ***XXIX Rikardo Arregi Kazetaritza saria.***
- ***Kazetari Berria saria.***

Aipaturiko bi sari horiez gain, egoki edo beharrezko iritziz gero, **Epaimahaiaren Sari Berezia** egiteko aukera eskura du epaimahaiak.

### 3.- Sari-atalen ezaugarriak.

#### **3.1.- XXIX. Rikardo Arregi Kazetaritza saria izeneko atala.**

2016ko maiatzaren 7tik 2017ko maiatzaren 7ra bitartean egunkari eta aldizkarietan, agerkari digitaletan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu izan diren lanek daukate saria eskuratzeko aukera.

Edozein mota edo generotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera. Epaimahaiak, hortaz, inolako genero-mugarik gabe erabakiko du saria.

Saria erabakitzeke irizpide nagusiak honako hauek izango dira: kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna, eredugarritasuna hala euskal kazetaritzarako nola inguruan egiten denerako.

Ondorioz, aipatutako irizpideen arabera nabarmendutako artikulua edo erreportaje bakanak nahiz sortak, sekzio bat, irrati edo telebistako erreportaje bat edo erreportaje-sorta bat edo programa bat... horietarik edozer saritu ahal izango du epaimahaiak.

Proiektu komunikatibo osoak ez dira atal honetan sarituko, baina epaimahaiak aukera izango du Sari Berezirako kontuan hartzeko.

### **3.2.- Kazetari Berria saria izeneko atala.**

Kazetaritzaren hastapenetan dabiltzanei zuzendutako saria da hau, eta, ondorioz, hogeita zazpi urtez azpikoek, hau da, 2017an, hogeita zazpi urte edo gutxiago izango dituztenek parte har dezakete atal honetan.

Herrietako aldizkari eta irrati eta telebistak, hala nola hedadura zabalagoko komunikabideak: horietatik guztietatik edozein izan daiteke 27 urtez azpikoek *Kazetari Berria saria* jasotzeko lana plazaratzeko erabilitako komunikabidea.

Edozein mota edo generotako kazetaritza-lanak dute saria eskuratzeko aukera. Horrela, bada, 2016ko maiatzaren 7tik 2017ko maiatzaren 7ra bitartean prentsa idatzian, agerkari digitaletan edo irrati eta telebistetan plazaratutako artikulua, erreportaje, informazio-programa, magazin eta abarren artean kalitatea eta egokitasuna kontuan hartuz epaimahaiaren iritzian bikainena denari emango zaio saria.

## **4.- Lanak aurkeztea.**

**4.1.-** Sariaren bi ataletan **nahitaez aurkeztu beharko dira lanak**, nahiz eta epaimahaiak lan horien artean behar adinako kalitatezko topatzen ez badu, beti izango du aukera proposamenak egiteko. Aurkezteko, autoreek nahiz komunikabideek hala nola sariaren helburuekin zerikusirik duen edozeinek aurkez ditzake lanak, betiere **2017ko maiatzaren 14 baino lehen** aurrerago adierazten den helbidera lana bidaliz, hauetako era batean:

- kopia bat euskarri fisikoan (papera, cd, dvd...)
- Interneten eskuragarri baldin badago, horren lotura.
- Pdf formatuko artxiboa.

Denboran luzez irauten duten lanen kasuan, gehienez 6ko lagin bat egin beharko dute, eta horien kopiak bidali.

**4.2.-** Aurkeztutako lan guztiak argitaratu edota emititu izan direla egiaztatzeko, prentsa idatzian argitaratutako idazlanen kasuan, argitalpenaren kopia bat bidali beharko da, eta, irrati edo telebistako emanaldien kasuan, berriz, dagokion enpresak luzatutako emisio-ziurtagiria. Edozein modutara ere, nahikoa litzateke, aipatutako

argitalpenaren kopia edo emisio-ziurtagiriaren ordeztu, lana aurkezten duenaren beraren zinpeko aitortzea, argitalpen edo emisio eguna eta komunikabidea adieraziz, edota interneten eskuragarri dagoen lotura jakinaraztea. Beste horrenbeste esan liteke agerkari digitalez ere.

**4.3.-** Hona sarira aurkeztutako lanak bidaltzeko helbideak:

- Andoaingo Udala-Euskara Zerbitzua, XXIX Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, Goikoplaza, z/g, 20140 ANDOAIN.
- [raks@andoain.eus](mailto:raks@andoain.eus)

**4.4.-** Aurkeztutako lanak, edozein euskarritan aurkeztuta ere, ezingo dira berreskuratu.

## 5.- Sariak.

*XXIX. Rikardo Arregi Kazetaritza saria* eskuratzen duenari 9.000 euro garbi emango zaizkio.

*Kazetari Berria saria* eskuratzen duenari 3.000 euro garbi emango zaizkio.

Gainera, lehen bi sari-ataletako saridunei Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren Xabier Laka eskultoreak egindako eskultura emango zaie, Epaimahaiaren Sari Berezia balego, Xabier Lakaren serigrafia eskuratuko dute. Era berean, agiri-diplomak jasoko dituzte saridun guztiek.

Sariak zatietan dira, baina, hori bai, taldean edo elkarlanean egindako lanei ere eman dakieke saria.

Sarietako edozein hutsik utzi ahal izango du Epaimahaiak.

## 6.- Epaimahaia.

Ondorengo hauek osatzen dute epaimahaia:

- **Mahaiburua:** Andoaingo Udaleko Euskararen Normalizaziorako zinegotzia, Ainara Rodriguez Zalakain, edo honek bere ordeztuko gisa izendatutako udalkidea.
- **Mahaikideak:** Goio Arana, Marijo Deogracias, Maria Gonzalez Gorosarri eta Xabier Landabidea.
- **Idazkaria:** Andoaingo Udaleko euskara teknikaria, hizpidez baina hautespiderik gabe jardungo duena.

## 7.- Sarietako buruzko Azken Erabakia.

**2017ko uztailaren 8an** emango da aditzera sariei buruz epaimahaiak hartutako *Azken Erabakia*, apelaezina izango dena, Andoaingo Bastero Kulturgunean ospatuko den ekitaldi berezian.

### **8.- Baldintzak onartzea.**

Sari honetara aurkezteak oinarriok ontzat ematea dakar berarekin, eta saria jasotzeko nahitaezkoa izango da oinarriotan finkatutako betebeharrak osorik betetzea.